Bergarako Udala

2026SKAK0003

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

2025. URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

ARAUDI APLIKAGARRIA

* 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
* 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
* 2025eko azaroaren 18ko Ministro Kontseiluen akordioa: "2026-2028 ekitaldirako aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak, eta 2026rako Estatuaren aurrekontuaren gastu

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1. ENTITATE ZERRENDA:

1. BERGARA
2. BERGARA-EUSKALTEGI
3. BERGARA-EGOITZA
4. BERGARAKO BIHARGINTZA S.A.

2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena/premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, honako hau izan da 2025. urtean:

Defizita:	**2.448.363,75**
DGarekin finantzatutako defizita:	**0,00**

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetako sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetako gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta. Ondoko taulan xehatzen da egin den kalkulua:

ESKU2117599c-e6ec-422f-a027-086aeea8abce

Sarrera ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	29.234.305,57
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	31.682.669,32
SEC doikuntzak	0,00
Finantzaketa ahalmena / premia	-2.448.363,75
DGak finantzatutako obligazio ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	2.334.864,80
DGak finantzatutako defizita:	0,00
Finantzaketa ahalmena / premia, plana egiteko obligazioaren ondorioetarako	-2.448.363,75

2025. urterako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren 2025. urterako helburua.

Finantza iraunkortasuna

2025-12-31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, honako hau izan da, 2025. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia: %46,23

Kalkulua egiteko, 2025-12-31ko zor bizia erabili da, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.

Sarrera arruntak: 28.696.696,84€

Entitate finantzieroekin maileguak 2025/12/31: 11.515.924,15€
IDAE (mankomunitatea): 1.751.000

Zor bizia 2025/12/31: 13.266.924,15€

2025. urterako ezarritako helburua zor bizia %110 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du finantza iraunkortasunaren 2025. urterako helburua.

Gastuaren araua

Kalkuluak egiteko, 2025eko azaroaren 18ko Ministro Kontseiluen akordioa izan da kontuan: "2026- 2028 ekitaldirako aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak, eta 2026rako Estatuaren aurrekontuaren gastu finantzarioaren muga zehazten dituena" izan da kontuan. Akordio horretan, ondorengo mugak onartu dira:

2025	2026	2027	2028
3,20%	3,50%	3,40%	3,20%

ESKU2117599c-e6ec-422f-a027-086aeea8abce

2025. urtean gastuaren muga eta gastu konputagarria honako hauek izan dira:

Gastu konputagarria:	**30.026.405,29**
Gastuaren muga:	**25.794.160,10**
Diferentzia:	**4.232.245,19**

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

	2025	2024
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	31.682.669,32	27.496.847,39
Zorraren interesak:	159.029,87	241.098,30
SEC doikuntzak:	0,00	0,00
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	1.497.234,16	2.261.407,91
Gastu konputagarria:	30.026.405,29	24.994.341,18
BPGaren hazkundearen erreferentzia tasa: %3,2	799.818,92	
Arau aldaketen eragina:	0,00	
Gastuaren muga:	25.794.160,10	
Gastu konputagarria - Gastuaren muga:	4.232.245,19	

Hori dela eta, toki entitate honek ez du betetzen 2025. urterako gastuaren araua.

3. ONDORIOAK

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren arloan 2025. urterako ezarritako helburua ezta gastu araua ere. Beraz, toki entitate hau behartuta dago plan ekonomiko finantzarioa onartzera. Aipatutako planak ahalbideratu behar du urteko ekitaldian eta hurrengoan defizitaren eta zorraren helburuak betetzea, baita gastu araua ere. Plan hori Udalbatzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontatzen hasita; bi hilabeteko epean onartu beharko da, gehiena jota, aurkezten denetik kontatzen hasita; eta martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontatzen hasita.

Bergaran, 2026ko martxoaren 27an.
Kontu-hartzailea

EKS | CSV: ESKU2117599c-e6ec-422f-a027-086aeea8abce

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410